# Goierritarra

279. zenbakia 2005eko apirilak 22


# Zorionak Ordizia!




SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zkia. 649 RPS. 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ODONTOLOGOA



ERABATEKO
· GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT
HORTZ
ERABAT EGOKITUAK DAUDE . KLINIKAK SAN
KLINIKA
INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK
INTEGRATUA

Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.






# Kursal
## ZENTRO MEDIKUA

**943 88 22 51**

Garmendia Otaola, 7 - behea
**BEASAIN**





- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

R.P.S.:32/04

# BEROGAS

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

# BEROGAR

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK

vegasa

**BULEGOAK-LANTEGIA**
**USABAL, 11-A**
**TOLOSA**
**Tel.: 943 672 620**

**POLIURETANOZKO LEIHOAK**




**ERAKUSKETAK:**
**SAN FRANTZISKO, 10**
**TOLOSA**
**Tel.: 943 653 307**

BERTSOTAN

## Lazkaoko festak



Jon Aldasoro

Urtero legez Lazkaoko festak
zaizkigu ta inguratu
udaletxeak bere aldetik
festak ditu antolatu
baina gazteak inondik ere
ez gera lo geratu
udaletxea lo dagoenez
beharko degu esnatu.

Goizetik hasi eta gauera
hemen badago aukera
eguraldiko gizonari nik
egiten diot galdera
eguraldiak zer egingo du
onera edo txarrera
berdin-berdin festa egongo da
etorri Lazkao aldera.

Doinua: Txirritarena


**Goierritarra**

**HAMABOSTEKARIA**

**Argitaratzailea:**
Goierritarrak Kultur Elkartea

**Urbialde plaza, 7 - behea**
**BEASAIN**



**Posta elektronikoa:**
goierritarra@topagunea.com

**Telefonoak:**
**Erredakzioa:** 943 88 96 12

**Publizitatea:** 607 530 424
647 319 757



**Zuzendaria:** Loinaz Agirre

**Maketazioa:** Mikel Albisu

**Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
**Tirada:** 7.000 ale
**ISSN:** 1132-0907
**Lege gordailua:** SS-926/89
**Frankeo kontzertatua:** 37/76



***Goierritarrak** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.*


# AURKIBIDEA


6. **Kate motzean:** Izaro Iraeta

8. **Erreportajea:** Goitzat

12. **Erreportajea:** Beasain Kirol Elkarteak 100 urte

18. **Argazki-erreportajea:** Ordiziako errugbia Ohorezko Mailan

22. **Erreportajea:** Lazkaoko Intxaurrondo dendak 50 urte

26. **Erreportajea:** Murala Maizpiden

27. **Esperientziaren leihoa:** Mendi ibilaldiak Beasainen

28. **Debaldeko iragarkiak**

30. **Argazki zaharra**


8



12



18




**Goierritarra** Goierriz kanpo jasotzeko tarifak:

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria eta Espainia: | urtean 12 euro |
| Ipar Euskal Herria eta Europa: | urtean 24 euro |
| Europaz kanpo: | urtean 36 euro |

**Goierritarra** diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

*Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain*

EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia

# Festa iraunkorrak

Gure kulturan jaiak momentu ospatuenetakoak izaten dira. Momentu eta leku hauetan ingurumen koherentzia batekin jardutea posible eta beharrezkoa da eguneroko bizitzan egin beharko genukeen bezala. Honek ingurumen kudeaketan, heziketan eta komunikazioan lan bat suposatzen du, jaiak ingurumen inpakturik txikiena edukitzeko asmotan.

Jaia sistema bat dela pentsa daiteke, energia sozialak baliabide materialekin leku eta denbora jakin batean elkartzen diren sistema bat.

Jaiei buruzko ideia zabaldu bat baztertu behar da; alegia, pertsonek inguruan duten eragina kontuan hartzen ez duten aparteko gertaerak diren ideia baztertu behar da.

Jaiek leku bat kontsumitzen dute, eta batzuetan lekua guztiz alda edo eralda dezakete desordenaren edo apaingarrien bidez. Eraldaketa horrekin leku hori ez ezagutzea lortu nahi da, leku desberdin eta original bat bihurtzea jaietako parte-hartzaileengan erreakzio baikorra eragitea errazteko.

Jaiek denbora-iraupen mugatua dute, baina denbora horretan askatasunaz gozatzen dugu, gizarteratzeeta irudimen-dosi handiekin; baliteke eguneroko bizitzan askatasun hori ukatuta izatea.

Jai guztietan gertatzen dira honelakoak:

- Baliabideak eta energia kontsumitzen dira parte-hartzaileei ondasunak eta zerbitzuak emateko.
- Hondakinak, hondakin-urak eta atmosfera isurpenak sortzen dira.

***Kontsumo-gizarte batean, ospakizunak ondasun eta zerbitzuen kontsumo-maila handitzearekin lotzen dira.***

**IRAUNKORTASUN PRINTZIPIOAK JAIETAN:**

- Behin bakarrik erabiltzeko ontzien erabilera murriztea
- Hondakinak berriro erabiltzea eta birziklatzea
- Energia-baliabideak aurreztea
- Poluzio akustikoa minimizatzea
- Ingurumen-heziketa sustatzea
- Istripu-arriskua saihestea
- Jai-barrutiko irteerak eta sarrerak aurrikustea
- Jaira joateko eta itzultzeko garraio publikoa sustatzea




MUJIKA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA


AUSOEGI
ERREFORMAK
- Tximini eta ekonomikak
- Berogailuak
- Iturgintza
- Zeramika erakusketa
- Bainuko altzariak
✆-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

ondoeta
GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK
E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
✆ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA


Iñausti
Hortz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



UDABERRIA ODOL BERRIAREN ITURRIA BALIA ITZAZU GURE ESKAINTZA BEREZIAK!
Gure eskaintza bereziak gain, PICNIC-eko burusi bat oparituko dizugu, soilik aurrerakontua eskatzeagatik*
Hurbilen duzun sukurtsalean itxaroten zaitugu
*Eskaintza honek maiatzaren 16ra arte balio du.
LAGUN ARO
SEGUROS - ASEGURUAK
Beti zugan pentsatzen
www.seguroslagunaro.com
Euskadiko Kutxa Taldekoa

Izaro Iraeta, telebista aurkezlea



# “Kamararekin erlazio berezia sortzen da, ‘engantxatu’ egiten du”

**Aurkezle bezala, lan ezberdin ugari egin izan duzu. Zertan sentitu zara erosoen eta gusturen?**
Saio batean zenbat eta gehiago inplikatu, orduan eta gustorago zaude bertan. Ikusgela saioan adibidez oso gustora aritu nintzen, lantalde txikia zen eta ia-ia denetik egin behar nuen erreportajeak grabatu, editatu, gidoiak idatzi, elkarrizketak prestatu, produkzio lanak egin... Baina, egia esan, orain arteko saio guztietan aritu naiz gustora, zortea izan dut.

**Euskaraz ala gazteleraz erosoago?**
Euskaraz dudarik gabe.

**Kamara aurreko aurkezpen lana ala jende aurrekoa?**
Kamara aurrekoa. Kamararekin erlazio berezia sortzen da, ‘engantxatu’ egiten duela esaten dute eta uste dut egia dela.

**Orain arte egin ez, eta gustura egingo zenukeen lan bat:**
Lan asko daude gustora egingo nituzkeenak, erreportajeak bertatik bertara grabatu, magazin bat egin...

**Aurkezle lagun bat:**
Ezagunak ETB-ko guztiak dira, aldiren batean lan egin edo topo egiten baitugu, baina lagunak gehiago ditut kamera atzean lan egiten dutenen artean.

**Gustura elkarrizketatuko zenukeen norbait:**
Jende asko. Kontatzeko interesgarria duen edonor elkarrizketatuko nuke gustora. Vicente Ferrer adibidez.

**Zerk sutzen zaitu?**
Gezurrek, hipokresiak, itxurakeriak, debekuek, ilegalizazioak...

**Zerk sortzen dizu barrea?**
Egun nire semeak.

**Zure ametsetako bidaia:**
Indiara bidaia luze-luze bat.

**Zure bizitzako egunik zoriontsuena?**
Zoriontsuena ez dakit, baditut oso egun bereziak. Baina dena den egunik zoriontsuenak etortzeke daudela pentsatu behar da beti.

**Bizitzeko leku bat:**
Herri txiki bat.

**Mendia ala itsasoa?**
Mendia.

**Zer eramango zenuke irla huts batera?**
Familia, janaria, etxea eta pardelak.

**Goierriko txoko bat:**
Zubiaurretik Lazkaomendira doan bidea.

**Amets bat:**
Euskal Herri euskalduna.

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK
sukalderik goxoenak
Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala
Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
Filtroak, olioa, engrasea
Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak


Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

# Jaiak (denda espezializatua)

Legorretan, Lazkaon, Beasainen...
laster festak!
Mozorrotu eta ONDO PASA!



Plaza Majori 12 (Ordizia) Telf:-943 888232





# Goitzat

*Adimen urritasuna duten pertsonen eta familien elkargunea*

**2000 urtean sortu zen Goitzat elkartea Beasainen. Goierriko adimen gaixotasunak dituzten pertsonei eta hauen senideei arreta, laguntza, informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea da bere egitekoa, beti ere bizi kalitatea hobetzeko helburuz. Orain arte barrura begira lana egin badute ere, sentsibilizazio kanpaina batekin, gizarteratu egin nahi dute adimen urriko pertsonen gaia eta Gotzaiten lana, eta aldi berean, gizartea hausnarketa egitera bultzatu. Maribi Lopez beasaindarra da Goitzat elkarteko lehendakaria.**




ARRIKUTZ Tailerrak

Tel.: 943 88 52 00 Nafarroa Etorbidea, 51 BEASAIN

Autoen salmenta eta konponketa orokorrak

HONDA

HONDA CRV berria

140 CV I-CTDI - 6 habiadura

5 urteko bermea mugarik gabe

Beasaingo Kale Nagusiko 38. zenbakian du egoitza Goitzat elkarteak. Irabazi asmorik gabeko elkartea da eta lau boluntariok osatzen dute. "Adimen gaixotasunak dituzten pertsonentzako eta beraien familiartekoentzako zerbitzurik eta orientaziorik eskaintzen ez duen elkarterik ez zegoen Goierrin, nahiz eta beste arlo batzuetan oso aurreratua egon", azpimarratu du Maribi Lopezek.

Batez ere, Beasain, Lazkao eta Ordiziako kideak dituzte Goitzat elkartean. Udalen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta eskualdeko hainbat enpresen diru laguntzak jasotzen ditu Goitzatek.

Aholkularitza zerbitzua, orientazioa eta informazioa dira Goitzaten egiteko nagusiak. Formazio taldeak ere osatzen dituzte adimen urrikoak dituzten familientzat. Horrekin batera, ekintza bereziak antolatzen dituzte edo eta, beste elkarte edo erakundeek antolatzen dituzten programetara bideratu. "Adibidez, Antzizar kiroldegian, mantentimenduzko soinketa eta igeriketa taldeak daude Udalak antolatuta eta guk hara bideratzen ditugu. Gu bezalako elkarteen artean ezin da konpetentziarik egon. Osatu egin behar gara, bateragarriak izan", zehaztu du beasaindarrak.

## Aisialdia

Maribi Lopezen arabera, momentu honetan, adimen urritasuna duten pertsonentzako, aisialdia da arazorik handiena eta beraien ekintza gehienak aisialdira bideratzen dituzte. "Lana-



## Familiekin ere zuzeneko lana

Adimen urritasuna duten pertsonen familiekin lan berezia egiten dute Goitzaten. "Ikusten genuen, adimen urritasuna zuten pertsonentzako zerbitzua eskaintzen genuela, baina familiartekoak zerbitzuetatik kanpo gelditzen zirela", dio Maribi Lopezek. "Adimen urriko pertsona da gure helburu nagusia, baina hauengana beraien familiaren bidez iristen gara. Familiaren zuzeneko informazioa jasotzen dugu. Familiakoekin beharrak identifikatzen ditugu eta programa bereziak garatu".

### Beharrak detektatu eta neurriak hartu

Hiru astean behin, laguntza taldeetan elkarten dira adimen urritasuna duten pertsonak sendiartekoak "Ez dira terapia taldeak, nahiz eta askotan lasaitzeko eta askatzeko balio duten. Talde hauen helburua, elkar ezagutzea, esperientziak elkartrukatzea, eta guk profesionalok, dituzten beharrak detektatzea dira. Orain arte, profesionalen informazioarekin jokatu izan dugu, baina ez gara pentsatzen jarri, familiek zein arazo eduki ditzaketen. Guk beharrak detektatu eta ahal den neurrian arazoak konpontzen saiatzen gara", azpimarratu du Maribi Lopezek.

Azkenaldian mahai gainean, bi kezka nagusi dituzte adimen urrikoen familiartekoek beasaindarraren esanetan: "eurak ez direnean, zer egingo duten, gizartearengan ez baitute konfidantzarik, eguneroko bizitzan ikusten dituzten jokabideekin, kolektibo honek oso babes sozial gutxi jasotzen du eta. Kezka hori guk ezin diegu kendu, baina bai informazioa eman. Beraien tutoreak zeintzuk izango diren kezka ere badute: guk informazioa ematen diegu eta gero bakoitzak erabakitzen du zer egin. Familiak gustura daude. Beraien seme-alabez gain, familiartekoez arduratzen hasteko garaia bazela diote".

Horrelako egoera batean eguneroko bizitzan, bakarrik, aurrera egitea egitea zaila dela gaineratu du Maribik. "Egoera zailak dira, askotan, etxean, bakarrean sufritzen ditugunak. Adimen urriko pertsonak jokabide arazoak, lo arazoak... izaten dituzte, gizartean ezagutzen ez ditugun arazoak. Ez da hainbesterako adimen urriko haur bat edukitzea. Zaila dena, eguneroko bizitza bizitzea da. Puntualak izan litezke, baina familiak asko sufritzen du. Laguntza handiak behar ditu familiak. Askotan jendeak ez dituzte familiartekoak ulertzen. Gehiegi babesten dituztela esaten zaie askotan. Baina nola ez dituzte bada babestuko? Gure babesa behar dute, gizartean baztertuak izan ez daitezen".

kutxa

gizarte ekintza



ren arloan errekurtsoak eta zerbitzuak badaude arlo honetan. Barietate gutxi dago, hori bai. Familiak, arlo horretan lasai daude. Aisiarekin daude kezkatuta familiak. Pertsona hauek ez dute iniziatibarik edukitzen. Bakarrik ez dira gai izaten zenbait gauza egiteko. Laguntzak behar dituzte. Goitzatek boluntario bidez hori erraztén du eta aldi berean, beste ekintza batzutarako sarrera erraztu. Adibidez, dantza egitea asko gustatzen zaie. Goitzatetik, dantza taldeetan sartzen saiatzen ari gara. Udan, esate baterako, lanean goizez bakarrik lan egiten dute eta arratsalderako udaleku irekiak antolatzen ditugu. Oso esperientzia aberasgarria izan da eta oso ondo onartu dute".

Aisialdiarekin lotuta, irailetik aurrera, tailer egokituak antolatuko ditu Goitzatek, lanetik atera ondorenerako. "Gizartean, antolatuta dauden hainbat ikastarotan ezin dute parte hartu, gaitasun murriztuak dituztelako. Guk, sukaldaritzako tailer egokitua antolatu dugu. Aisia betetzearekin batera, beraien autonomia handitzeko, beraien abildadeak garatu nahi ditugu. Sukaldaritza tailer honetan, mikrouhin labearekin lan egingo dugu, suaren arriskurik ez baitute ikusten askotan. Otordu pare bat prestatzen erakutsiko diegu, lagunartean. Lehenengo laguntzak tailerra ere antolatu dugu".

## Normalizazioa

Gizartea gai hauetaz sentsibilizatuta ote dagoen galdetu diogu Maribi Lopezi. "Aho txikiarekin denok oso ondo hitz egiten dugu, oso erraza da. 'Gaixoak' hitza asko entzuten da, baina hitz hori ezabatu egin behar dugu. Ezin dugu pertsona bat onartu, lastimagatik. Zentzu horretan, ikastetxeak lan handia egiten ari dira, ikasgela integratuekin. Giro normalizatuetan egoteko aukera daukate. Haurren arteko harremana oso naturala izaten da. Dena den, familietatik jasotzen dugunaren arabera, gu, helduok gara, kontzientziatuta ez gaudenak".

Normalizazioa urruti omen dago oraindik. "Normalizazioaz hitz egiten dugunean, askotan, beraiek normalizatu behar dela esaten da. Baina ez da horrela. Gu normalizatu behar gara, eta ulertu, mantenimenduko soinketa ikastaroan, adimen urriko pertsona bat egon daitekeela".

## Sentsibilizazio kanpaina

Gaur, apirilaren 22an, Olaberriko Castillo hotelean, onegintzazko afaria edo afari benefikoa antolatu du Goitzatek, egiten ari den sentsibilizazio kanpainaren barruan. "Afariagatik ordainduko den zati bat elkartearentzat izango da. Dena den, laguntza ekonomikoa baino garrantzitsuagoa da, gizartearen parte hartzea", dio Maribi Lopezek.

Gizartean hausnarketa eragin nahi dute sentsibilizazio kanpainarekin. "Zer diren informatu behar dugu gehiago eta hausnarketa egin dezagun, gu nolakoak gara. Utz dezagun beraiek normalizatzeaz eta gu normalizatu gaitezen". Mezu ezberdinak eman nahi dituzte Goitzatetik. "Hemen gaude, gauzak egiten ari gara eta gutxiengoa den kolektibo batekin lanean ari gara, eta kolektibo horrek gehiengoa den kolektiboaren laguntza eta babesa behar ditu. Zergatik? Guk bakarrik ezin dugulako ezer lortu. Esku bakar batek ezin du txalorik egin. Egoera honetan ez dagoen jendeak lagundu egin behar duela ulertu behar du jendeak. Minbiziaren, Hiesaren... kontrako elkarteekin gauza bera gertatzen da. Gertatzen zaigun arte ez gara kezkatzen. Jendeari pentsa arazi egin nahi diogu. Jendea oso ondo bizi da, batez ere eskualde honetan. Bizitza maila eta bizitza kalitatea onak dira, baina guztiona al da ona?".


**Goierritarra**

**etxean jasotzeko laguntzaile txartela**

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak: ..........

Helbidea: ..........

Herria: .......... Tfnoa.: ..........

NAN: ..........

Kontu zenbakia (20 digitu): ..........

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia



VOLVO

ANZIZAR, S. A.



Autoen salmenta
Mekanika eta elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a BEASAIN
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA **Erizain laguntzailea**

Osasun familia.

A-D ereduetan



IPARRAGIRRE INSTITUTUA

**TITULAZIOA:**
Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

**IRAUPENA:**
1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu).

**LANBIDE ETORKIZUNAK:**
- ✘ Ospitaleko erizain laguntzailea.
- ✘ Lehen artapenetako laguntzailea.
- ✘ Kontsulta pribatuetan.
- ✘ Zaharren egoitzetan.
- ✘ Hortz-kliniketan laguntzailea.
- ✘ Gaixoen zaintza.

**J.M. Iparragirre B.H.I.**
Santa Barbara Bidea z/g.
**Urretxu 20700**
Tel./Faxa: **943 721413- 943 721403**
E-posta: **jmiparragirre@edunet.es**
**www.ibdinternet.com/iparragirre**

SERIGRAFIA

kirol taldeentzako

KUADRILA EGUNERAKO

DESPEDIDIDETARAKO

KOLORE ETA TAILA GUZTIETAKO KAMIXETAK ZURE ESKU

ALGODOIA, LICRA, POLIESTERRA

BLABLABLA.....

**KOLOREA JARRI ZURE JAZKERARI**

E-MAIL S@SERIGRAFIA.COM
ZELATA-BERRI PLAZA, 3 BAJO 20200 BEASAIN (GIPUZKOA) 943 80 40 27 FAX:943 80 40 28

# 'Beasain Kirol Elkartea: Atzokoak eta gaurkoak'



Miren Barandiaran historialariak, Beasain Kirol Elkartearen historia bildu du bere mendeurrenean, 'Beasain Kirol Elkartea: atzokoak eta gaurkoak' liburuan. Futbolak protagonismo berezia izan badu ere, beste hainbat kirol ere egin izan da Beasainen. Apirilaren 26an egingo da liburuaren aurkezpena, 19:30ean, Usurbe Antzokian.



**ARRIKUTZ Tailerrak**

Tel.: 943 88 52 00 Nafarroa Etorbidea, 51 BEASAIN

Autoen salmenta
eta konponketa orokorrak

| | |
|---|---|
| Motorra | Diesel injekzioa |
| Zilindrada | 505 cm³ |
| Zenbat zilindro | 2 lerroan |
| Potentzia | 5,4 zaldi |
| Karburantea | Gasoila |
| Kanbio kaxa | Automatikoa |
| Eserlekuak | 2 |
| Maleteroa | 1100 litro |
| Luzera | 2950 mm |



1904an sortu zen Casino de Beasain elkartean du bere jatorria, gaur egun ezagutzen dugun Beasain Kirol Elkarteak. Miren Barandiaran beasaindarrak azaldu digunez, "gehienbat, aisialdiko elkartea zen. Kirola oso gutxi egiten zuten. Jendea biltzeko tokia zen Casinoa, bere tabernatxoarekin. Dantzaldiak antolatzen zituzten tarteka. Urtean behin, festa egun bat antolatzen zuten, bazkariarekin, joko herrikoiak, lasterketak, aurreraxeago futbola... Pixkanaka-pixkanaka futbola indarra hartzen joan zen. Aisialdirako eta kutsu politikorik gabeko lehenengotariko elkartea izan zen Beasainen sortu zena".

1920an, Beasain Foot-ball Club elkartea sortu zen. "Beasain futbol taldea, ordukoa da. Txapelketetan parte hartzen hasi zen taldea. Casinoa ere gero eta kirol ekintza gehiago antolatzen zituen eta bi elkarteek ere helburu berdiak zituztela ikusita, elkartu eta Casino Recreativo de Beasain Foot-ball klub elkartea sortu zen. Casinoko lokala erabiltzen zuten. Txirrindulari lasterketak, kroks txapelketak, pilota partiduak... antolatzen zituzten. Kultur izaera mantendu bazuen ere, Kirol Elkarte bezala mantendu zen", zehaztu du.

1936an, Gerra Zibilarekin, Casinoa itxi egin zuten. "Hor ibili zen jendea, liberala zen, errepublikar liberala. 1918an, kutsu politiko bat emateko saiakera bat egon zen, Casino de Beasain y Centro Democrático izena jarri zioten.. Kandidatura liberalarentzako gune bat sortu nahi zuten. Hiru urtetan, inaugurazioko urteurreneko festa, Ordiziako Zirkulu Liberaleko lehendakariak zuzendu zuen. 1919an, udal hauteskundeetan, kandidatura liberalaren prestaketa Casinoan egin zuten. Mitinen bat eman zuten. Bi urteko saia-

## Txirrindularitza, pilota eta mendia

Beasain Kirol Elkartearen barruan protagonismorik handiena futbolak izan badu ere , Txirrindularitza, Pilota eta Mendi sailak ere Kirol Elkartearen barruan izan ziren, 1960. urte ingurura arte.

### Txirrindularitza

1926an Loinatz proba hasi ziren antolatzen. 1958an txirrindulari taldea sortu zuten Caobania izenarekin. As-Kas eta Sastreria Jauregi taldeak ere sortu zituzten urte haietan.

Txirrindularitza sailaren ekimenez, arrakasta handia izan zuen beste proba bat antolatu zen, 1950ean hasi eta 10 urtez: Kostaldeko Bira.

1963an Txirrindularitza Saila atera egin zen BKEtik, Loinaz Txirrindulari Elkartea sortuz.

### Mendia

Murumendiko Bira, Ospitalerako Bisita, Usurbeko gurutzea beraien ekimenez egin eta jarri zen, Igaratzako txangoa, bazkideentzat irteerak... egin ziren Mendi sailak antolatuta. Gero eta mugimendu gehiago sortu zenez, banatu eta Aitzgorri Mendizale Elkartea sortu zen.

### Pilota

Pilota partiduak edo txapelketa txikiak antolatzen ziren, bazkideentzat. 1945-1946an Gipuzkoako Afizionatuen txapelketako barrutia izan zen Beasain. Sociedad Deportiva Beasain izaten zen antolatzailea. "Bizpahiru urtetan pelotari garrantzia dezente eman zitzaion baina gerora utzi egin zen, pilotalekua falangearen esku baitzegoen".








ikasteknik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain
Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa
Carrefour merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

kera izan zen, baina berehala aldatu zuten izena. Casinoan biltzen zirenak ez ziren abertzaleak, hauek batzokia baitzuten".

1939an, futbol taldea berrantolatu zuten, Paco Elzo buru zela. "Elkartea sortzeko gogoa bazegoen, baina futboletik abiatuta. 1943an, falangeak kendutako Casinoa berreskuratu zuten. Sociedad Deportiva Beasain izenarekin sortu zen elkartea. Casino de Beasainen sorreraren bueltan nortzuk ibili ziren jakitea ez du lortu Miren Barandiaranek. Quintin Altolagirre izan omen zen elkartearen lehenengo lehendakaria.

Txirrindularitza, Mendi eta Pilota sailak ere bazituen Elkarteak, nahiz eta futbola izan garrantzitsuena. 1960.eko hamarkadan, sail bakoitza bereizi egin zen, bakoitzak bere elkartea sortuz. Ideologia ezberdinetako jendea biltzeko lekua izan da Gerran, elkarren aurka borrokan aritu zirenak, elkar topatzeko lekua ziren Casinoa eta futbola, miseriak eta tentsioak ahazteko.".

### Futbol taldea

1922-1923an hasi zen futbol taldea lehiaketetan parte hartzen. Izena eta ospea, 1920.eko hamarkadaren bukaeran hartu zuen, orduan hasi baitzen irabazten. "C mailan, Tolosako barrutiko txapeldun atera zen pare bat urtean, Gipuzkoako txapeldun ere bai. B mailara igo eta Bergarako barrutian ere txapeldun izan zen. A taldean, Reala, Real Union, Tolosa... zeuden. A taldean egoteko aukera izan zuen, baina azkenean ez zuen lortu. Elkartearen urrezko garaia izan zen, futbol taldea ondo zebilelako. Jende asko gerturatzen zen, diru arazorik ez zuten... Garai hartan Gipuzkoako txapeldunak izatea, gauza handia zen", zehaztu du Barandiaranek.

Herriko jendearekin osatu zuten taldea. 1929 inguruan, kanpoko jokalariren bat fitxatu zuten, garaipenekin, erakargarria baitzen Beasain orduan.

### Senperetik Loinatza

Sociedad Deportiva Sempere izan zen Beasain Football Club taldearen aurrekaria. 1919an, Senpereko futbol zelaiaren inguruan sortutako taldea zen bera. Lehenengo urteetako partiduak, 1958. urtera arte, CAFek prestatutako Senpereko futbol zelaian jokatzen zituzten.

1958. urtean inauguratu zen Loinatzko futbol zelaia, Realaren eta Athleticen arteko partiduarekin. "Senpereko lursailak CAFek behar zituen. Bitartean, Ordizian, Aranako futbol zelaian jokatu zuten, alokairu baten truke. Ordizia-Beasain arteko pikerik gehienak garai hartakoak dira nire ustez. Askotan lehiatzen zuten futbolean elkarren aurka. Dena den, komeni zitzaien



## 'Bagoneroak'

Ezizen horrekin ezagutu izan dira Beasaingo jokalariak, hasiera batean, Senpereko futbol zelaia zela-eta, CAF lantegiarekin zuten loturagatik. 'Gorritxo' bezala ere deskribatu izan dute prentsan. Jantziagatik izan litekeela uste du Miren Barandiaranek. "1930.eko hamarkadako argazkietan arrastoak ikusten dira jantzietan baina aurretik, jantzi zuriak, gorriak... ikusten ziren". Gehienetan lokatzetan jokatzen omen zuten. "Gaur egungo botak harrapatu izango bagenitu!", esan diete Beasain futbol taldeko hainbat jokalari ohik Miren Barandiarani. "Galtzerdien partez buelta mordo bat emandako bendak jartzen zituzten. Asko pisatzen omen zuten. Baloiak, berriz, trapuzkoak izaten ziren".

### Lehenengo entrenatzailea

Roman Unanue beasaindarra izan zen dokumentuetan azaltzen den lehenengo entrenatzailea. "Zaragozatik etorri zen. Jokalaria eta entrenatzailea zen. 1930 urte inguruan izan zen hori". Jokalarien artean, Beasaindik atera direnak honakoak: Mikel Lasa, Jabier Artabe, Victor Argiñano, Juanito Zubiaurre, Paco Elzo...

ARRIETA
JATETXEA
Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak... era guztietako ospakizunak
☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

ondo eramatea, garai hartan, dirurik gehien sarreretatik lortzen zuten. Beasain eta Ordizia arteko lagunarteko partiduak antolatzen zituzten, dirua lortzeko. Loinatz futbol zelaia egin zutenean, Ordiziatik urrutirago zegoenez, jende gutxiago etortzen omen zen ikustera eta txapelketetan ere gero eta gutxiago koinziditzen zuten... pikea jaisten hasi omen zen", gogoratu du beasaindarrak.

Ordiziarren eta beasaindarren artean gertatu zen bitxikeria bat kontatu digu Barandiaranek: "Gipuzkoako Kopan Beasainek eta Ordiziak elkarren aurkako partidua zeukaten, Ordizian. Baina ez zen jokatu. Zergatik ez dakit. Federazioak Beasaini isuna jarri zion: 1.600 pezetatik gora ordaindu behar zion Beasainek Ordiziari, Ordiziara ez joateagatik. Bi partidutako txapelketa, 'copa reconciliación' antolatu zuten. Beraz, txapelketatik lortutako dirutik, 1.600 pezeta horiek Ordiziarentzat izan ziren eta gainerakoa, erdibana. Beasainek irabazi zuen, hirugarren partiduan, desenpatea jokatuta. Kopa txiki bat eman zioten Beasaini eta bitrina berezia egin zioten. 'Copa de supramacia de Goierri' deitu zitzaion prentsan".

Gaur egungo aurrerapenik ez, eta partidurik jokatu gabe behin baino gehiagotan gelditzen omen ziren. Esate baterako, aurkariari, Etxegaraten autobusari zerbait gertatu eta ezin izan zutelako garaiz abisatu.

## Kirol herrikoia

Futbola kirol herrikoia izan da, jende asko joaten zen igande arratsaldetan futbol zelaira."Pelota partidu bat ikustea baino merkeagoa zen futbolera joatea. Festa izaten zen. Familia giroan joaten ziren".

## Beasain Kirol Elkartea. Kronologia

**1904.** Casino de Beasain elkartea sortu zen, gaurko Beasain KE-ren jatorria. Helburua: aisialdirako jarduerak antolatzea (musika, antzerkia, dantzaldiak...) eta, zertxobait geroago, kirola sustatzea (pilota, txirrindularitza, mendizaletasuna, oin-lasterketak... eta futbola).

**1914.** Elkarteak Sociedad Casino del Norte izena hartu zuen.

**1918.** Elkarteak Casino de Beasain y Centro Democrático izena hartu zuen eta politikan sartu zen, liberalen alde (gutxi iraun zuen ekimenak).

**1919.** Senpere futbol zelaia eraiki zen.

**1920.** Beasain Foot-ball Club elkartea sortu zen. Helburua: kirola sustatzea. Beasain FC izeneko futbol taldea sortu zuten eta txapelketa erregionaletan parte hartu.

**1925.** Casino de Beasain eta Beasain Foot-ball Club elkarteek bat egin eta Casino Recreativo de Beasain Foot-ball Club elkartea sortu zuten. Helburua: aisialdirako jardunak antolatu eta kirola sustatu.

**1926.** CR Beasain FCk Loinaz Txirrindulari Proba antolatzearen ardura hartu zuen.

**1926-1927.** Beasain Gipuzkoako Txapelketa Erregionaleko txapelduna izan zen C Taldean.

